BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 48

D MAILA

Egile eta data ezezagunak
(Ez dago jatorrizko espedienterik artxiboan)

Deskribapena
Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, gehi 1932ko jasodura bat atzeraemana. Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokia duena bao zentralean, Art Nouveauren eragina duena. Bao bikoitza eraldatua behe oinean.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (6. goi oina, atzeraemana).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak – behe oineko baoen eta fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.